



BARREN

TOKIKOM



Moda artelan



ESKAITZA
HOBEEZINAK
Ekainaren
14tik 25era



NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1
Eibar. Gipuzkoa

www.naiacar.com

Tel.: 943 70 70 33

28.000 lagun baino gehiagok aprobetxatu dituzte 10 egun KIA. Berriz datoz ekainaren 14tik 25era eskaintza hobeezinekin. The Power to Surprise

Konsumo konbinatua (l/100 km):4,0-7,6. CO₂ (g/km) isuriak: 104-177

Quilómetros combinados (l/100 km):4,0-7,6. CO₂ (g/km) emisiones: 104-177. Información adicional sobre el Programa de Financiación KIA. Consulte el sitio web de KIA. *El precio incluye IVA e impuestos de matriculación. **El precio incluye IVA e impuestos de matriculación.

EKIGAIN jaia

Sua, ura, natura eta ... GU, urteko egunik luzeena ospatzeko

Ekainak 21, osteguna

Egitasmoa:

- 19:00 Maalako parkean elkartuko gara, handik Sallobentera oinez joateko.
- 20:15 Ongi-etorria.
- 20:45 Afari-merienda.
- 21:45 Suaren erritua.
- 22:30 Saltoak
- 23:00 Etxerako bidea, oinez, kalejiran.

Oharrak:

- Oinez joateko aukerarik ez duzuenontzat, 20:00etan izango da hitzordua Sallobente-Ermuaranen.
- Afari-merienda norberak eraman behar du, baina txosna jarriko dugu edariak erosteko.
- Frontala edo kopeta-argia eramatea komeni da, bueltako biderako.



Antolatzaileak: URBANIZAZIOA GUREA



Babesleak: ELKARREAN GUREA



DANOBATGROUP

GOIMEK S.COOP.

HONAKO HAU BEHAR DA

ARTEZKETA ZILINDRIKORAKO LANGILEA

FUNTZIOAK:

- Pieza zilindrikoen artezketa eta egiaztapena.

ESKAKIZUNAK:

- Titulazioa: Goi mailako heziketa zikloa, Mekanizazio Bidezko Produkzioa edo balliokidea.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanpostu batean baloratuko da.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna
- Egiaztapen tresnak erabiltzen jakitea.

ESKAINTZEN DA:

- Berehala lanean hastea.
- Esperientziaren eta gaitasunen araberako soldata.

EPEA:

- 2018ko ekainaren 30a baino lehen.

Interesa dutenek, Giza Baliabideen Departamentura bidali dezakete beraien curriculum:

ecarballo@soraluce.com

Barren 25 urte

Asto-kakak lagatako arrastoa

Bakoitzak bere astoari egin behar omen dio arre, baina herritar asko aritu ziren Akeiko astoei oihuka orain dela urte batzuk Aita Agirre plazan egindako Asto-kaka jokoa. BARRENI diruz laguntzeko prestatutako joko hartan astoak gorotza non utzi gune hori markatzen zuen zenbakia zeukanak jaso zuen saria eta oraindik gogoan da joko hark BARRENEK utzitako arrastoa.

Barren aldizkariak urteko defizitari aurre egiteko herritarren laguntza ezinbestekoa izanik, Ni ere banaiz BARREN kanpaina ipini genuen abian 2010ean eta aldizkariaren atzean jende asko dagoenez horri esker 12.000 euro lortu eta Barreneko aurrekontuak parrera ekartzea lortu zen. Baina Herriak BARREN behar duelako, eta BARRENEK herritarren beharra duelako honi diruz laguntzeko Asto-kaka jokoa prestatu genuen 2011n.

Bati baino gehiagori iritsiko zaio hau irakurri orduko garai hartako asto-kaka usaina edo Akeiko astoek orduan egindako arrantza hotsa jokoak herritar asko erakarri baitzituen Plaza Txikira. Zertan zen baina Asto-Kaka jokoa? Bada plaza 5.000 laukitxotan banatu eta zenbatu ostean, Akei baserriko bi asto atera zituzten plazara, eta haiek kaka noiz eginzain egon zen jendea. Asto-gorotza jausi zen laukitxoko zenbakiaren jabeak jaso zuen saria.

Kakak bai usain txarra, sariek ez, ordea: 2.000 euroko saria lehena, Jasone Osorok eskuratu zuena. Eta astoak kakarik egin ez zuenez, zozketa bidez aukeratutakoa, 1.000 eurokoa, bigarrena, Ander Zulaikarena.

Horiek banatzeko 5.000 txartel hiruna euroan ipini genituen salgai eta denak saldu ezezik asko gabe gelditu ziren. Egunean

bertain txartel jabe asko egon zen Txomin Arriolak plazaratutako astoei so. Bai, begira, izan ere so! ez zien inork esan ez Kondesa ezta Benita astoei. Kondesak baina ez zuen gorotzik egin plazan, urduritasunek eraginda-edo bidean nahikoa egin baitzuen. Benita, ordea, bosgarren minuturako kaka eginda zegoen.

Dirua behar genuela jakinekua zen arren, ez genuen dirua ezerren truke eskatu eta emozioa zein jai giroa zabaldu genituen asteburu hartan. Ostiralean, astoen arrantzekin alderatzerik ez dauden soinuek hartu zuten Leku Ederren karpa. Herriko kantari eta musikariek (Mari Juli eta Agurtzane, Jon Gurrutxaga, Napoka Iria, Hankahutsik eta K104) usain goxoa eman zioten gauari. Zapatuan, berriz, asto kaka usaina babarrunenek hartu zuten. Bapo bazkaldu eta dantzarako aukerarik ez zen falta izan gero MP5ekin erromerian.

Mikel Olaizolak Asto-Kaka jokorako propio prestatu zuen kantuan esan bezala han ibili ginen astoak ez ezik besteak ere "zarataka, arrantzaka, zein koadrotan jausiko da gure asto-kaka?". Izan ere batak arre eta besteak barre han egon ginen denak pozarren, eta saria jaso zutenak ezezik irabazle izan zen Barren.



Ezkerreko argazkian Akei baserriatik ekarri zituen Txomin Arriolak Kondesa eta Benita astoak.



Jasone Osorok jaso zuen 2.000 euroko saria Iñaki Kondereren eskutik.

HARRI & IRRI

Zorionak



ZORIONAK 19

Argazkiak eguazten eguerdia (12.00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zukdik **Liirk** sari
Nidak naskdik...
naskdik fikl...
askik.



Zorionak **barren** zure 25.
urtebetetzean. Ondo ondo
ospatu. Muzu haundi bat
heritar guztion partez.
Segi horrela!



Rik... nek **Tikst** oisji
u... jh... k...
s... d... u...
s...



K... k... **k...k...**
s... k...
s... k...



L... s...
a... k...
d... k...
a...



K... d...
s... k...
s... k...
c...



L... o... **Y...**



P... k... l...
nsapzplekk



J... k... d...



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-
kiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain
hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutiak ataletan adierazita-
koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZE-**
TARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati
Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLI-**
ZITATEA Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO**
ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzurika **ADMINISTRARIAK**
Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon
Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena,
losu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpi-
llaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula
Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki
Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreaz-
aldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Geru Koop.E. **TIRADA**
4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► DEBABARRENEKO IV. RAID-A

Morkaiko Mendizale Elkarteko Raid taldearen izenean, eskerrak eman nahi dizkizuegu Debabarreneko IV. Raid-a antolatzen lagundu diguzuen guztioi:

Elgoibarko Udala, Mendaroko Udala, Kirol Patronatua, Udaltzaingoa, Udaleko brigadako langileak, Danobat, Alcorta, Iriondo Kirolak, Astigarraga, GoBike, Bizkor, Pitxintxu, Txarriduna, Beristain, Mausitxa gaztak, Ainhua Fisioterapia, Errigora, Jasone inprenta, Eroski eta Gurutze Gorria.

Eskerrik asko Mintxeta Atletismo taldeari, Sanlori, C.D.Elgoibarri, Idortobeko tabernari, Leizarpe espeleologia taldeko Evaristo eta Tobajasi eta Asier Lizarralderi eman diguzuen laguntzagatik. Mendaroko pilota elkarteari eta Arno guraso elkarteari, frontoiaren erabilera gurekin adostegatik.

Denak aipatzea ezinezkoa bazaigu ere, ezin ahaztu era batera edo bestera, raid hau posible egin duzuen boluntarioak, eta nola ez, parte hartzaileek igarotako lur sailen eta baserrien jabeak, bereziki, Aubixako Maritxu eta Arnoate baserrikoak. Norbaiti eragozpenen bat edo beste sortu badiogu, barkamena eskatu nahi genioke.

Datorren urtean ere, nagusientzako raid-a, nahiz raid familiarra antolatzeko gogo eta indarrekin geratu gara. Hurrengo urtera arte!

Debabarreneko IV. Raid-eko antolatzailak

► SEBAS ETXERA

Ekainaren 23an, San Juan bezpera, ekitaldi berezi bat egin nahi dugu Elgoibarren. Maiatzaren 4an ETAk desagintzat jo du bere burua. Minak eta era guztietako biktima asko izan dira azken 60 urteetan. Horiei guztiei aitortpena, justizia eta erreparazioa eman beharko zaie. Baina aurrera begiratzeko momentua da

batez ere. Eta ezin dugu etorkizuna eraiki berriro ere pertsona batzuen oinazean oinarrituta. Euskal presoeri aplikatzen zaien salbuespen politika desagertzeko ordua da. Sebas Etxanizek 74 urte ditu eta espetxean dago azken 15 urteetan. Sebasentzako exijitzen dugu beste presoeri ematen zaizkien onura berdinak jasotzea: bigarren gradura pasatzeko eskubidea izatea, Euskal Herriko espetxeren batera etortzeko eskubidea izatea, eta, bere adina kontuan hartuta, etxeratzeko eskubidea izatea. Frantziar gobernuak beste era bateko talantea erakusten badago ere, espainiar gobernuak jarrera itxian mantentzen da. Ipar Euskal Herriak erakutsi digu, herria, helburu baten inguruan biltzen denean, lortu daitekeela gobernu ere mugitzea. Guk bide horri heldu nahi diogu eta ekainaren 23rako hainbat ekitaldi prestatu ditugu:

- 11:30etik 12:30era Zunba saio bat izango da Kalegoen plazan.

- 13:00etan giza-mosaikoa osatuko dugu Kalegoen plazan baita ere. Sebasen adina irudikatu nahi dugu 7 eta 4 zenbaki erraldoien bidez. Sebasek etxean egon beharko lukeela aldarrikatu nahi dugu era honetan.

- 11:30etik 13:00etara arte hainbat artistek mural kolektibo bat osatuko dute, Kalegoen plazan baita ere.

Aro berriari hasiera ematera goazen honetan, zure partehartzea inoiz baino beharrezkoagoa da. Lerro hauetatik gonbidapena luzatu nahi dizuegu, era batera edo bestera, parte har dezazun egun horretarako antolatu ditugun ekintzetan. Orain presoak! Sebas etxera orain!

SARE Elgoibar

► AUPA ELGOIBAR!

Elgoibarko Gure Esku Dagoko lagunok *Aupa Elgoibar!* esan nahi dugu ozen.

Aupa Elgoibar eta eskerrik asko pasa

den igandean denon artean lortu genuen argazkiagatik.

Horren aurretik lan handia egon da, lan handia eta askorena: GED taldeko ona, tutoreona, giza katearen berri ahoz aho herrian zabaltzen lagundu diguzuen herritar askorena, antolakuntza lanetan lagundu diguzuenena...

Denon artean 1.300 elgoibartar baino gehiagoren borondatea lotu genuen Melitonetik Sigmaraino. Eta beste milaka mordo bati eman genion eskua, Donostian hasi, eta Bilbotik zehar borondate hori legebiltzarrerara eramanez izateko. Erabakitze eskubidearen aldeko aldarria izan zen, eta horretarako dauzlagun 2019 arrazoiren azalpena.

Aurrerantzean ere, bidean lortutako konplizitateei eutsi eta berriak topatzen saiatuko gara, sarea zabaltzen, jakinda, nahi dugunean, herritarrok badakigula kalera irteten eta gure nahiak adierazten.

Itzela egin genuen Elgoibarren, *denon artean* egin genuen, eta aurrerantzean ere jarraituko dugu lanean, zuen laguntza eskatzen, eta zuei daukagun onena eskaintzen.

Besarkada handi bat katean egon zireneten guztioi, egon nahi baina ezin izan zenuitenoi eta aurrerantzean egongo zaretenoi.

Zorionak eta mila esker! Laster arte!

Elgoibarko Gure Esku Dago Lan Taldea

'Atera selfiea!' kanpainako zozketan hamabost herritarrek jaso dute 20 euroko erosketa txartel bana

Elgoibarko denda, taberna eta jatetxeetan euskararen erabilera gehitzeko *Atera Selfiea!* kanpaina egin du Elgoibarko Izarrak Udalaren laguntzaz. Zerbitzua euskaraz eman dezaketen merkataria eta ostalariak ikusaraztea izan da kanpainaren helburua, eta bezeroak motibatuz, herritarrek denda eta tabernetan euskara gehiago erabiltzea.

Salerosketak euskaraz egiten dituzten erosle eta merkatariek (dendari zein ostalariak) elkarrekin selfie bat atera dute eta Elgoibarko Izarrara bidali. Lehiaketarako selfieak bidali dituzten 124 herritarren artean zozketa egin dute eta hamabost herritar saritu dituzte.

Honako hauek eskuratu dute 20 euroko erosketa-txartela: Pedro Galarraga (Fadek), Amaia Arrizabalaga (Ametsa), Urrategi Altzibar (Pitxintxu), Juan Xavier Reyes (Sigma), Marijo Mugerza (Meraki), Bea Ansola (Ibarrenea), Ana Rodriguez (Gabi), Mari Jose Pagoaga (Fadek), Maite Arregi (Pitxintxu), M^{re} Angeles Zabala (Belaustegi), Ione Feijoo (Idama), Nagore Irureta (Ibarrenea), Susana Crespo (Sara frutadenda), Maria Jesus Vitoria (Pitxintxu), Iñaki Iglesias (Txillarre). Uztailaren 18ra arteko epea dute, kanpainan parte hartu duten 39 establezimenduetan erosketa-txartela trukatzeko.



Sagardo Eguna antolatu du Atabal elkarteak ekainaren 22rako

Elgoibarko Atabal danborrada elkarteak Sagardo Eguna antolatu du ekainaren 22rako. Ostiralean, 18:45ean egingo diete ongi-etorria Udal ordezkariari Maalan eta ondoren, 19:00etatik zabalik egongo dira sagardo kupelak gainontzeko herritarrentzat.

Atorrasagastikoa eta Petritegikoa izango dira edateko ekarriko dituzten sagardoak eta pintxoak ere salduko dituzte Euskal Parrillak prestatuta.

Urkaikoko hanburgesak eta Basetxerriko txerri saiheskia eta hirugiharra jan ahal izango dira pintxoetan. Horretarako txartelak erosi beharko dira aurrez: elkarteko irudidun edalontziaren nahibeste txotx egiteko eta pintxo baten truke 5 eurotan eta pintxo gehiago nahi izanez gero, pintxo bakoitzeko 2 euro ordainduta.

Euskara azterketak prestatzeko ikastaroak izango dira udan AEKn

Elgoibarko AEK euskaltegiak uztailean eskolak emango ditu Ega, Irale, Ivap, Osakidetzeta eta Habeko azterketak egin nahi dituztenak prestatzeko. Izena eman edo informazioa eskatzeko, AEKra (Kurutzelaei 10) joan behar da, 607 601 423 telefonora deitu edo elgoibar@ae.k.eus helbidera idatzi, hilaren 27a baino lehen.

Elgoibarko Udalak bost entsegu lokal sortuko ditu

Pedro Mugurutzak eskolako sotoan Elgoibarko musika eta kultur taldeentzako entsegu lokalak egingo ditu Udalak. Herriko kultura musikala sustatzea eta gazteen parte-hartzea bultzatzea da helburua. Guztira, bost entsegu gela intsonorizatu eraikiko ditu, bakoitza 20 metro koadrokoa.

150.000 euro baino gehiago inbertituko ditu Udalak horretarako. Murgil enpresa egokitzapen lanak egiten aurreko astean hasi zen eta gelak urrirako erabilgarri eta eskuragarri egotea aurreikusiko dute.

Kultura sailean 15 talde inguru dituzte kontatuta eta eskaera hainbestekoa izanik, askok entseguak egitera kanpora joan behar izaten dute. "Udalak laguntza eskaini nahi die entseguak egiteko toki bat eskainiz eta zergatik ez, gure herrian etorkizunean egingo diren kontzertuetan beren parte-hartzea sustatuz", esan du Ane Beitia alkateak.

Iraileko deialdi bat egingo dute entsegu lokal horiek erabili nahi dituzten Elgoibarko taldeek izena eman dezaten.

Jendez gainezka izan zen Maala Udal Musika Bandaren eta abeslarien Rock Gaueko kontzertuan

Ekainaren 8an, rock doinuek jantzi zituzten Maalako parkeko txoko guztiak. Udal Musika Bandarekin eta Silvia Hernandez, Patxi Zabaleta, Juan Carlos Martin eta Andoni Mujika musikariek Gatibu taldeko Alex Sardui eta Jon Gurrutxaga eta Jon Zabala elgoibartarrak izan ziren kantuan. Bandako musikariak eserita zeudela aurrean herritar mordoa egon zen zutik abestiek gozatu eta batzuk baita kantariekin batera abestuz ere. Kontzertu bukaeran hiruek batera *Lau Teilatu* abestia eskaini zuten eta propina moduan.

Gorka Mujika bandako zuzendariaren esanetan, musikariak eta abeslariak oso gustura daude bai kontzertua nolako izan zen eta baita entzuleek nola erantzun zuten ikusita. "Entzule batzuk esan didate horrelako kontzertuak hilabetean behin egin beharko genituzkeela. Hori ez, baina kontzertua-



ren arrakasta ikusita egingo dugu antzerako beste zerbaitekin". Hurrengo emanaldia San Bartolome Egunean egingo dute eta irailean hasiko dira Herriko Antzokiko ohiko kontzertuekin.

Ekigain jaian parte hartzera Sallobentera joateko gonbitea egin du Elgoibarko Izarrak

Ekainaren 21ean, ostegunean, udari ongietorria emateko, suak, urak eta naturak bat eginez, Ekigain jaiak egingo dute herritarrek Sallobenten. Elgoibarko Izarrak jai horretan parte hartzera gonbidatu ditu elgoibartarrak. 19:00etan Maalako parkean hitzordua egin, denak batera oinez joan eta hara iritsitakoan norberak eramandako jatekoarekin afari-merienda egingo dute, edatekoa hango txosnan erosi ahal izango da. Suaren erritua egingo dute 21:45ean. Eguneroko gaitzak txorimalo batekin irudikatu eta hori sutan erreko dute txarrei agur esanez. Gero, su gaintetik saltoka ibiliko dira ume zein helduak. Etxerako buelta 23:00ak ingururako iragarri dute eta bekokiko argia zein linterna eramatea gomendatu dute itzulerarako.

Dantza moderno eta garaikide ikuskizuna Mendaron

Gaur, ekainak 15, dantza jaialdia eskainiko du Mendaroko Goñati Pilotalekuan Mendaroko Dantza Modernoen Taldeak. 22:00etan hasiko da dantza saioa eta Ana Alberdi, Lucia Dieguez, Naia Aizpurua eta Jone Barandika irakasleekin jardundako 4 eta 18 urte bitarteko 70 haur eta gaztek hartuko dute parte jaialdian. Ikasturte amaierako ikuskizunean dantza moderno eta garaikide erakustaldia egingo dute. Sarrerak doanekoak izango da.



Pelax taldearen kontzertua izango da domekan gaztetxean

Unai Pelayo donostiarrak barka hasitako ibilbidea beste hainbat musikaririk osatu eta Pelax taldea osatu zuten, Iker Vazquez bateria joleak, Iñigo Ozaeta baxu joleak eta Andoni Olaetxea gitarrak joleak, hain zuzen ere. Unai Pelayok ere gitarra doinuak ahots gordinez jantzi eta rock doinua zabalduko dute domekan, ekainaren 17an, Elgoibarko Sutegixa gaztetxean. 19:00etan hasiko da emanaldia eta sasoi berri honetan eskainiko duten lehenengo kontzertua izango da. Sarrerak 3 euro balio du.

▶ ENEKO ITURBE

MODA DISEINATZAILEA

Eneko Iturbe gazte elgoibartarra moda diseinatzailea da. Bartzelonan ikasketak egin eta modarekiko oso sentipen artistikoa izanik, Anberesen master bat egin zuen artearen mundua landuz. Cortefielen eta El Corte Inglesen aritu zen ondoren, baina gaur egun etxera itzuli eta bere diseinuk lantzen dihardu. Berak egindako bilduma bati, Bilbao International Art & Fashion moda lehiaketan, kategoria bereziko saria, Euskal diseinatzaile onenarena, eman zioten asteazkenean. Bere moda ibilbideari eta emakumezkoentzako egindako jantzi hauei buruz berba egin digu Iturbek.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

♦ **Moda beste ikuspegi artistiko batzuekin lotzea ezinbestekoa izan da sari hau eskuratzeko. Non jaso duzu horretarako zailtasuna?**

Espainian moda oso ikuspuntu komertzialetik lantzen da Inditex eta *fast fashion*-eko markak dira garrantzitsuenak eta ikasketak oso bideratuta daude ikuspuntu horretatik. Beraz, Anberesera joan nintzen master bat egitera. Han moda oso ikuspuntu artistikotik ikusten dute eta arropak lantzen dituzte eskulturen pare, museoetan jartzeko, ez kalean erabiltzeko. Urtebetez egon nintzen Anberesen, baina beraien ikuspuntua oso itxia da eta haiekin lotura estua izanez gero bertan bete-betean egon nintekeen baina parametro horietatik kanpo ibiliz gero zaila da.

♦ **Alde artistikorako lotura jaso arren Espainiara itzuli eta beste arlo batzuetan hasi zinen, ezta?**

Fast fashion-eko markak zuzenean hasi ziren deika eta Cortefielen diseinatzaile lanetan aritzeko aukera eman zidaten. Kobratzen hastea eta hesi hori apurtzea egokia izan zen. Gero El Corte Inglesen Denim (bakeroak batik bat) atalaz arduratu nintzen. Tendentzien mende bizi nintzen eta horrek ez dauka puntu artistikorik. Diru asko maneiatzen dute eta baliabide guztiak eskura izan arren salmenten arabera diseinatzen dute eta pasioa daukagun jendearentzat gogorra da. Beraz, erabaki nuen etapa hori bukatu behar nuela. Denbora asko zen nire kabuz, artistikoki, ez nuela ezer landu eta Euskal Herrira itzulita nire proiektu batekin hastea pentsatu nuen.

♦ **Bilbao International Art&Fashion lehiaketa izan da proiektu hori lantzeko aitzakia eta saria eskuratu duzu.**

Bai, aitzakia izan da ikusteko Anbereseko etaparen ondoren, azken bildumarekin zenbat hobetu dudan eta nire burua proban jartzeko.

♦ **Zertan oinarritu zara lehiaketako lanean?**

Lehiaketan derrigorrezkoa da bildumak jatorri edo inspirazio artistikoa izatea. Nik beti izan dut gustuko gai utopikoak, kontzeptualak, ezohikoak, "makabroak" lantzea, baina publikoarekin oso



“Diseinatzaileok pentsalariak ere bagara”

erraz konektatu nahi izan dut. Horretarako, erraz ulertu zitekeen artista figuratibo, pikturiko bat hartu nuen: Vaquero Palacios. Espainiako barrualdeko herri txikiak paisaiak marrazten zituen niri asko gustatzen zaidan moduan, pintzelada oso zabalekin, senaren arabera eta koloreen erabilera oso ona eginez, beraz, koloreen aitzakia ere baneukan bildumarako.

Saiatzen naiz gaiak oso itxiak izan ez daitezen, ni ere nire buruarekin harrিতa sentitzeko. Bidaia egin nuen herri haietako garai historiko batean kokatzeko: bizimodua, egunerokotasuna, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak... Izan ere, nahi nuen niri gorputzean ematen zidan sentsazioa bilduman islatzea. Gaia lantzean sentitu nuen ez nukeela garai hartan bizitzerik nahi, zaila eta gogorra izango zela, eta alde iluna, zikina eta gaizki bukatutakoa islatu behar zela, ez oso ederra. Era berean sastre alderdia gizonezkoarena, baina emakumera eramana. Eta itxuraz ondo islatuta geratu da.

♦ **Zein arropa diseinatu dituzu?**

Hiru look egin ditut bakoitza bi piezakoa oihal berdinez lan-

dutakoak eta gizonezko sastre trajeari erreferentzia eginez. Praka eta jaka izan beharrean egin dut beste era bateko gorputz bat prakekin edo jaka soineko batekin eta hauek ere fantasiosoak. Gainera, zetazko oihalak sartu dizkiet estanpatuekin, testura ezberdinekin eta hor ikusten da Vaquero Palaciosen kolorearen erreferentzia. Nire lanean erabili dudana ehun mota garrantzitsua tarlatana da, jostintzan gehienetan papar-hegalak gogortzeko erabiltzen dena. Nahi nuen jaken barruko egitura kanpora eramatea garai hartakoak oso oihal garrantzitsuak direlako eta tradiziozko jostintzarekin joan direlako.

◆ Oihal horiek aspaldikoak izanik nondik lortu dituzu?

Sastre oihal tradizionalen maitale naiz eta mundu horrek erakartzen nau. Begiz joa neukan Agirre jostundegia Elgoibarren eta handik pasatzen nintzenean dendakoari esaten nion itxi behar zuenean abisatzeko. Lortu ditut oihal batzuk eta etxean gordeta dauzkate erlikia batzuk izango balira bezala. Horiek erabili ditut, izan ere, ia 50 urte dituzten oihalak dira eta antzinako garaietara eraman naute. Gainera, gaur egungo oihaletan aurkitzen oso zaila den kalitatea dute. Oihal horiekin aritzen direnek, kasu honetan bezala, asko dakite horri buruz eta gustura hitz egin izan dut dendan berarekin.

◆ Aurreko zure bilduma eta lanetatik zein ezberdintasun du azken honek?

Sakontasun handiagoa eta lan pertsonalagoa ditu, interesatzen zaizkidan puntu guztiak landu ditudalako. Emaiztan baino gehiago prozesuan egon da ezberdintasuna. Pertsona batek arropa ikustean garapena detaile txikietan dago, esaterako, orain brodatuak sartu ditut. Sormen arloan, baina, ikerketa sakonagoa izan da. Diseinatzaileok pentsalariak ere bagara, ez gara hiru arropa soilik egiten ditugun pertsonak. Arropak %50a dira, gure sormenak duen balioan eta beste %50 ikerkuntza, pentsamen-



Moda motzean

- **Zure armairuan sekula falta ez den arropa bat?**
Kamiseta zuri bat. Zuriak denori argitasuna ematen digu.
- **Sekula jantziko ez zenukeena?**
Termiko bat kalerako.
- **Janzteko kolorerik aproposena?**
Beltza.
- **Diseinurako materialik gustukoena?**
Artilez egindako oihalak.
- **Arropez gain osagarriak aproposenak?**
Oinetakoak eta eguzkitako betaurrekoak.
- **Diseinatzaile bat?**
Dior.
- **Gustuko arropa bat?**
Jaka bat (amerikana). Gutxitan jantzi arren, ederki emanez gero, jantzitakoan berezi ikusten naiz.

dua... Sormena lantzen da egunero gauzak, erreferentzia artistiko eta istorikoak... ikusten.

◆ Arropa hauek erabiltzeko ala erakusteko baino ez dira?

Arropa hauek funts artistikoagoa dute janztekoa baino. Lehaketa hauek bukatu, etxean armairuan gorde eta han gelditzen dira. Hala ere, dena delako erabilera eman badiezaiek, primeran: erakusketa baterako, beste zerbaiteko janzteko, norbaitek erosteko interesa izanez gero ere hitz egingo genuke. Noizbait eskatu didate, baina orain ez dut komertzializatuko. Gainera, erabiltzeko zailak dira, ez gaude Londresen edo New Yorken eta Euskal Herrian modak aurrera luzea egin behar du. Arropa erabilgarriagoak egingo nituzke, baina gustatuko litzaidake ikuspuntu artistikodun bilduma bat egitea. Jendeari erakusteko esan beharrean "zein berezia, zein polita den" esan dezala "erabiliko nuke".

◆ Diseinu arloan aurrerantzerako baduzu egitasmorik?

Idea asko dauzkate buruan eta gauza askok ematen didate atentzioa. Nire zalantza da ateak itxi eta gauza zehatzetara jo behar dudana ala ateak edozeri irekita mantendu. Esponja baten parekoa naiz, gauza asko xurgatzea gustatzen zait, baina gaur egun jendea gero eta gehiago espezializatzen da. Orain gai batekin nabil: euskal jantzi tradizionalak. Uste dut gogor heldu behar diodala, nire sustraiak direlako eta nire lanean jatorri istorikoa islatzeaz gain, gero komertzializatu daitekeelako. Ez dut horretan espezializatuko jende asko ezagutzen eta kontaktatu dut beraienkin. Gai honi dagokionez badago beharra ikerkuntza aldetik eta pertsonalki atentzio asko ematen dit. Nik, orain dela urte batzuk, nire arrebari egin nion baserriar jantzia eta sekula egin dudana jantzirik onena eta egiten gehien gozatu dudana izan da. Niretzat baina ez dut arroparik egiten. Diseinatzaileok moda maite dugunez, arropa erostera joaten garenean exigenteak gara. Baina askotan jendeak oso *fashion* estereotipoa jartzen digu eta ni ez naiz horrelakoa.



1.700 katebegi

Joan zen domekan Gure Esku Dagok Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotu zituen giza kate batekin erabakitze eskubidea aldarrikatzeko. Mobilizazio jendetsu horretan, guztira, 175.000 herritar baino gehiagok hartu zuten parte eta 1.700 elgoibartar eta mendaroar kate luze hortako katebegi izan ziren eguerdian. Elkarrekin eskuz eta zapiz bat eginez bizikidetzaren, burujabetzaren eta erabakiaren aro berrirako pausoa irudikatu zuten herritarrek jai giroan. Mendaron izan zuten gero herri bazkaria elkarrekin egiteko aukera ere. Gure Esku Dagok adierazi zuen Ekitaldi jendetsu honekin "ez gara soilik mobilizatu erabakitze eskubidearen alde. Demokraziaren, oinarritzko eskubideen eta eskubide zibil eta politikoaren defentsan ere eman diogu eskua elkarri". Argazkiak eta bideoak www.elgoibarren.eus





C.D. Elgoibarrek mugikorrerako aplikazioa aurkeztuko du urteko batzar nagusian

C.D. Elgoibarrek urteko batzar nagusian parte hartzera deitu ditu bazkideak. Ekainaren 21ean, eguenean, izango da batzarra, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan hasita. Besteak beste, urteko balantze ekonomikoa eta kirol balantzea aurkeztuko ditu Jon Basurto presidenteak gidatzen duen zuzendaritzak. Horiez gainera, mugikorrerako aplikazioa aurkezteko baliatuko dute batzarra. Bazkide, guraso eta zaleen arteko hartu-emana erraztu eta sustatzeko sortu dute APPa.



Paella jana, denboraldiari agur esateko

Aurtengo denboraldiari amaiera emateko paella jana egin zuten aurreko zapatuan kirol elkarterako jokalaria, entrentzaile eta gurasoek Maalako parkean. Bazkalostean denboraldiko jokalaria aipagarrienen sariak banatu zituzten (ezkerreko argazkian). Talde guztiek denboraldia amaitu badute ere, Haundik mailaz igotzeko itxaropena bizirik mantentzen du. Izan ere, bete da lehen baldintza: Ordiziak Hirugarren Mailara igotzeko kanporaketa irabaztea. Orain, bigarren baldintza bete behar da, Portugalete edo Cultural de Durango euskal taldeak Bigarren B Mailara igotzea. C.D. Castellon eta U.D. San Fernando taldeak izango dituzte aurkari, hurrenez hurren, asteburu honetan hasiko dituzten kanporaketetan. Bietako batek igoera lortuko balu, Haundik eta Ordiziak ere lortuko lukete igoera.



Joseba Etxeberria Tenerifen eta Iñigo Arriola Palman entrenatzaile

Joseba Etxeberriak Bigarren Mailako C.D. Tenerife futbol taldearekin zuen hitzarmena berritu du eta kanarietan jarraituko du entrenatzaile hurrengo denboraldian. Iñigo Arriolak ere irletan topatu du lana, Balear uharteetan baina. Bigarren B Mailako Atletico Baleares taldeko bigarren entrenatzailea izango da. Joseba Etxeberria otsailean ailegatu zen C.D. Teneriferi. Jaitsiera postuetatik puntu batera zegoela hartu zuen taldea eta 11. postuan amaitu zuen denboraldia. Etxeberriak urtebeterako berritu du kontratua Teneriferekin. Iñigo Arriolaren entrenatzaile ibilbidea "Manix" Mandiolarenari lotua egon da, eta halaxe izaten jarraituko du. Mandiolak Atletico Baleares taldea entrenatu du amaitu den denboraldian Bigarren B Mailan, eta hurrengoan ere bera izango da Palmako taldeko entrenatzaile nagusia.



Pala txapelketetako finalak, ekainaren 22an



Joan zen martxoan hasi ziren emakumezkoen eta gizonezkoen binakako pala txapelketak ailegatu dira azken txanpara. Ekainaren 19an, datorren martitzenean, jokatuko dituzte finalerdiak eta barixakuan, ekainaren 22an izango dira finalak. 18:00etatik aurrera jokatuko dituzte neurketak Kalegoen plazan (euria egingo balu Ikastolako frontoian).

Pilotari gazteak Beñat Rezustaren aginduetara ari dira entrenatzen Elgoibarren



Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak (GEPF) 2014-15 denboraldian jarri zuen martxan eskuko teknifikazio proiektua. Pilotari gaztetxoei entrenamendu tekniko eta prestakuntza fisiko pertsonalizatua eskaintzea du xede, lurraldeko klubei laguntzarekin batera. Ekainean Elgoibarren egiten ari dira entrenamendu saioak, eguaztenero. Federazioak eginiko hautaprotetan nabarmendu ziren Deba eta Urola bailaretako pilotariak ari dira parte hartzen, eta Lagunak Pilota Eskolako Alex Bergua da saio hauetan parte hartzen ari den elgoibartar bakarra. Beñat Rezusta pilotari profesional bergararra ari da entrenamenduak zuzentzen.

Ehun umek hartuko dute parte Sanloren Eskubaloi Egunean



Sanlo eskubaloi taldeak festa giroan esango dio agur denboraldiari aurtengoan ere. Sanlo festa egingo dute bihar (ekainak 16). Bazkari baten bueltan elkartuko dira Sigman jokalarik, entrenatzaile, guraso eta babesleak. Zapatu goizean, eskubaloia kalera eramango du Sanlok, Eskubaloi Eguna antolatu baitute, seigarrenegoz. 2006 eta 2009 urteen artean jaiotako 97 neska-mutil arituko dira eskubaloian Kalegoen plazan. Elgoibar, Mendaró, Azkoitia, Markina, Deba eta Etxeberriako umek eman dute izena.

Olaizagako igerilekuak handitzeko esleipena



Jovino Martínez Sierra (Xixon, Espainia, 1961) arkitektuari esleitu diote Olaizaga kiroldegiko igerilekuak handitzeko exekuzioa eta jardura proiektua idaztea. Alegia, birgaitzen diharduten Aita Agirre eraikinak bezala, arkitektu asturiarraren ikutua izango dute igerilekuak handitzeko lanek ere. Esleipenean ageri denez, 46.000 euro (BEZ gabe) izango ditu proiektua idazteko eta 28.000 euro (BEZ gabe) obraren zuzendaritza gastuetarako.

Julen Urruzola Errendimendu Handiko Zentroan entrenatzera deitu dute



Espainiako Eskubaloi Federazioak 2002an eta 2003an jaiotako 60 jokalarik deitu ditu Sierra Nevadako (Granada, Espainia) Errendimendu Handiko Zentroan egingo duten egonaldian parte hartzera. Horien artean da Sanloko jokalarik Julen Urruzola elgoibartarra. Urruzola aurrez ere deitu izan dute Espainiako selekzioarekin jokatzera. Gipuzkoako eskubaloi selekzioarekin ere jokatu dute Sanloko hamabost jokalarik, Euskadi eta Nafarroako Lurralde Selektzioen Txapelketan batzuek eta Oñatiko Corpus Txapelketan besteek.

LANA.....

Eskaerak

Adinekoen zaintzan edo elkarrean garbiketari lan egiteko prest. Ikasketak eta esperientzia ditut.

☎ 671 989 434

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketari lanak egiteko prest. Orduka, egun osoz edo gabez.

☎ 631 907 807

Adinekoen zaintzan, lan egiteko prest nago.

☎ 622 037 598

Adinekoak zainduko nituzke. Geriatria laguntzailea naiz. Orduzko malgutasun handia.

☎ 646 931 162

Adinekoak asteburuetan edo orduka zaintzeko prest.

☎ 631 558 243

Adinekoak asteburuetan zaintzeko prest.

☎ 612 411 026

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketari lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan ere.

☎ 663 470 706

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketari lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan ere.

☎ 631 644 267

Adinekoak zaindu eta garbiketari lanak egiteko prest.

☎ 632 621 940

Edozein lanerako prest. Esperientzia handia daukat sukaldari eta gidari lanetan.

☎ 655 676 402

Adinekoak zaintzeko prest. Garbiketari lanak, sukaldaritza eta plantxa barne. Arduratsua naiz eta esperientzia daukat.

Etxeko langile moduan aritzeko prest.

☎ 631 406 177

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Etxeko langile moduan egoteko gertu.

☎ 666 197 831

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketari lanak egiteko prest.

☎ 612 311 026

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketari lanak egiteko prest.

☎ 631 657 380

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Arduratsua naiz.

☎ 632 877 170

Gaske arduratsua lanerako prest. Adinekoak zaintzen, etxeko lanetan edo garbiketari. Erreferentziak eta esperientzia daukat.

☎ 631 756 284

Adinekoak zaintzen edo garbiketari lanetan aritzeko prest. Ospitalean, etxean bertan bizitzen zein orduka.

☎ 602 490 595

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketari lanak (etxebizitzak, bulegoak, ikastetxeak, hoteletako logelak...) egiteko prest.

☎ 629 903 512

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Orduka nahiz etxeko langile moduan. Legezko egoeran nago.

☎ 634 709 827

Edozein lan egingo nuke: umeak edo adinekoak zaindu, garbiketari lanak... Orduka nahiz etxeko langile moduan. Gabez ere bai.

☎ 631 891 709

Lana behar dut. Edozein lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen jardun naiz eta badut esperientzia.

☎ 631 556 507

Adinekoak zein umeak zaintzen edo garbiketari lanetan jarduteko prest.

☎ 631 565 350

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketari lanetarako prest. Ospitalean orduak pasatzeko, orduka lanean aritzeko edo etxeko langile moduan jarduteko gertu.

☎ 642 249 818 (Gloria)

Adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia handia daukat, baita garbiketari lanetan ere.

☎ 686 077 316

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Esperientzia daukat eta berehala hasiteko gertu.

☎ 631 624 304

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketari lanak ere egingo nituzke. Esperientzia handia daukat.

☎ 631 532 426

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketari lanak ere egingo nituzke. Esperientzia handia daukat.

☎ 680 808 125

Sukaldari laguntzaile eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egiteko prest. Orduka.

☎ 694 432 670

Eskaintzak

LH eta DBHko ikasleentzako akademian lan egiteko irakaslea behar da. Interesatuak bidali curriculumak helbide honetara: akademiaelgoibar@gmail.com

Emakume edo neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko eta ume batekin egoteko.

☎ 653 715 141

ETXEBIZITZAK.....

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan.

☎ 686 420 642

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 631 790 555

Apartamentua alokagai. Logela bat, egongela, sukaldea eta bainugela.

☎ 696 550 356 / 653 863 482

Etxebizitza salgai ONUn. Igogailua eta ganbara ditu. 92.000 euro, negoziagarriak.

☎ 661 81 60 06 (Peli)

LOKALAK.....

Mendaroko Arrats taberna alokagai edo salgai jubilatzaioagatik. Interesatuak agertu tabernara edo deitutelefono zenbaki honetara: 943 755 058

GARAJEAK.....

Marra arteko garaieja salgai pista beltzean.

☎ 696 550 356 / 653 863 482

BESTELAKOAK.....

Urrezko katea aurkitu dut kalean, gurutzeta eta dominarekin. Galdu duenak, deitu.

☎ 626 686 355 / 943 742 233

Belarritako bat hartu dut kalean eta udaltzainen bulegoan utzi dut.



administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos
Instituto Vasco de Administradores de Recursos Humanos

ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Nire komunitatean hainbat konponketa egin dira pilare aizunetatik bideratutako hondakin-uren hoditeria aldatzeko. Lokalen onerako izan da pilareak kendu eta hodiak sabaitik bideratu dituztelako. Lokalen jabeak eskatu du lokal guztiak estaliko dituen sabai bat egitea. Jakin nahi nuke ea jabeak eskari hori egin dezakeen eta hala balitz ea lokal guztiko sabai estali beharko litzatekeen ala hodiak estaltzeko beharrezko zatia baino ez.

Lehendabizi jakin beharko litzateke komunitatea derrigortuta dagoen ala ez estetika-kalteak ordaintzera, guztien elementuei dagozkien konponketa lanak egiterakoan komunitatea jabetza pribatu batean sartzen denean.

Nire ustez eska daiteke sabai hori jartzea, baina ez lokal guztia estaltzea, hodiak tapatzeko behar dena baizik, hori baita estetikoki kaltetutako zatia. Kalte-estetikook komunitateak ordaindu beharko ditu. Izan ere, ezbeharrak eragindako kalte guztiak ordaintzera derrigortuta dago.

Aholkua: Lokalean izandako eragin kaltegarri guztiak konpontzeko egin behar dira lanak eta horien artean daude konponketa estetikoak. Beraz, lokalaren jabeak eska dezake lan horiek estetika errespetatuz egitea.

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



ZORIONAK

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARREN**eko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Aimar!** Gaur 7 urte! Muxu handi bat familiakoen eta bereziki. Danelen partez.



Zorionak, **Unax!** 4 urte handi bete dituzu! Mila muxu potolo etxeko guztien partez!



Zoixonak, **Markel!** Ondo-ondo pasatu eguna. Elgoibarko sorginak tarta jatera pasatuko dira!



Zorionak, **Elene,** ekainaren 18an 4 urte beteko dituzu. Muxu handi bat etxekook. Bere ziki Janirek eta Sarak.



Zorionak, bikote! Oso ondo pasa zuen urtebetetze egunetan. Muxu handi bana etxekoen partez.



Zorionak, **Maria** eta **Haizea!** Aste honetan zazpi urte! Segi beti bezain jator. Etxekook.



Zorionak, **sorgintxo,** 12 urte bete zenituelako! Desiatzen gaude urtebetetze festa izugarria ospatzeko! Txokolatezko muxuak!

OSPAKIZUNAK



Elgoibarren, 2018ko ekainaren 9a

Guztiok elkarrekin oso ondo pasa genuen 59 urtekoen bazkarian. Eskerrik asko antolatzaileei eta bertaratu zineten guztioi.



LAN DEIALDIA

LH eta DBHko Akademia lan egiteko curriculumak jasotzen dira. Interesatuak bidali helbide honetara:

akademiaelgoibar@gmail.com



PEDRO MIGUEL URRUZUNO,
S.KOOP

OHIKO BATZAR NAGUSIA Deialdia

Eguna: 2018ko ekainaren 21a
Ordua: 18:30ean lehen dialdian eta
19:00etan bigarrenean

Tokia: Ikastola. Ermuaranbide, 7 - Elgoibar



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenerdik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Irtepean degi zerbitzua dantxaguz.
Deitu ordua hartzeko.



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 744 112

BARREN

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR



San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com



URETARAKO
TAPOIAK
NEURRIRA

IGERITARAKO
BETAURREKO
GRADUATUAK

ZATOZ INFORMATZERA!

15 BARIKAKUA

16:30-19:30 Giza-futbolin erraldoia. Kalegoen plazan (euria bada Maalan).

Antolatzaileak: Elgoibarko Ludoteka eta Gaztelekua.

18:00-20:30 Odol ateratzea. Elgoibarko Odol Emaileen Elkartean.

18:30-20:30 Erakusketa: Joxe Martin Urrutia Txotxe, anntzerkigintza eta bizitza marraztuz. Ekainaren 17ra arte. Antolatzailea: Ekekei. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:00 Inazio Bereziartua Musika Eskolako talde finkoen ikasturte amaierako kontzertua. Maalan.

20:00 Dantza emanaldia: *Biraka zinema*. Herriko Antzokian. Antolatzailea: Biraka Dantza.

21:30 Bideo Foruma: *Un amor de verano*. Gidaria: Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Hai-zea.

18:30 Argazki erakusketa: *Incognita Patagonia*. Eñaut Izagirre Estibariz. Gaur, 19:30ean, bisita gidatua egilearen eskutik. Astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era. Ekainaren 30era arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Antolatzailea: Ongarri Argazki Taldea.

19:00 Euskal abestien kantaldia. Ameikutz Musika Eskola. Mendaroko Herriko Enparantzan.

22:00 Dantza emanaldia. Mendaroko Dantza Modernoen Taldea. Goñati pilotalekuan.

16 ZAPATUA

Sanlo festa. Kalegoen plaza eta Sigman. Antolatzailea: Sanlo EKT.

17 DOMEKA

16:00 Elkarretaratzea. Joseba Olazabal biolin joleari elkartasuna adierazteko. Mendaron, Mañuska parean.

19:00 Kontzertua: Pelax taldea. Sute-gixa Elgoibarko gaztetxean.

18 ASTELEHENA

19:30 Inazio Bereziartua Musika Eskolako talde instrumentalaren ikasturte amaierako kontzertua. Auditoriumean.

URRUZUNUKO JAIA

16, ZAPATUA

17:30 Meza bailaran hildakoen alde. Elkarteko atarian.

Ondoren, luntxa. Elkartean.

Segidan, herri kirolak.

Gero, umeentzako jolasak eta trial-sin proba.

21:15 Afaria, trikitilariak girotua. Urruzuno elkartean.

SANMIGELDARREN EGUNA

16, ZAPATUA

11:00 Meza, San Migel ermitan.

Ondoren, bertsolariak eta salda eta txorizoa.

12:00 Baltzola eta Andonegi trikitilariak.

12:30 Profesionalen eskuz binakako partidua: Nagore Aramendi eta Leire Etxaniz, Alaitz Badiola eta Ohiana Orbegozoren aurka.

14:30 Auzo bazkaria. Omenaldia Gregorio Larrañaga, "Mañukorta" bertsolariari.

Ondoren, dantzaldia Baltzola eta Andonegi trikitilarien eskutik.

EKIGAIN JAIA

21, EGUENA

19:00 Maalako parkean elkartu eta kalejiran Sallobente-Ermuaranera.

20:15 Ongietorria.

20:45 Afari-merienda.

21:45 Suaren errittoa.

22:30 Saltoak.

23:00 Etxerako bidea oinez kalejiran.



Manuel Soto Hernandez

2018ko ekainaren 7an hil zen, 84 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



19 MARTITZENA

13:00 Sari banaketa. TKgune enpresa-industrial ideia onenari. IMHko Asmaola berrikuntza zentroan.

19:00 Euskaraldiaren abiatze saioa. Mendaroko jubilatuen lokalean. Aurrez, Mendaroko euskararen kale erabileraren inguruko lehiaketa. Kinielak Mendaroko tabernetan, ekainaren 20ra arte.

20 EGUAZTENA

17:00 IMHren Ingeniaritza Gradu Dualaren informazio saioa. IMHn.

21 EGUENA

19:00 C.D. Elgoibarren urteko batzar nagusia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22 BARIXAKUA

18:00 Pala txapelketako finalak. Kalegoen plazan (euria egingo balu Elgoibar Ikastolako frontoian)

19:00 Elgoibarko Sagardo Eguna. Malako parkean. Antolatzailea: Elgoibarko Danborrada Atabal Elkarte.

19:00 Inazio Bereziartua Musika Eskolako talde finkoen ikasturte amaierako kontzertua. Herriko Antzokian.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK Egunez: 09:00-20:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

| 25 BARIXAKUA | 26 ZAPATUA | 27 DOMEKA | 28 ASTELEHENA |
|--|---|---|--|
| Egunez *Oruesagasti | Egunez *Fernandez | Egunez *Fernandez | Egunez *Ibañez |
| Egunez Garitaonandia | Egunez *Fernandez | Egunez *Fernandez | Egunez Yudego |
| 29 MARTITZENA | 30 EGUAZTENA | 31 EGUENA | 1 BARIXAKUA |
| Egunez Garitaonandia | Egunez Etxeberria | Egunez *Fernandez | Egunez Yudego |
| Egunez Garitaonandia | Egunez Etxeberria | Egunez Garitaonandia | Egunez Yudego |
| * Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142 | * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638 | * Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384 | Urte guztian, gauez: 22:00-09:00 La Fuente - Sostoa kalea,10 (Eibar) - 943 254 410 |

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

FUB Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntza doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitiko
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizar1@yahoo.com
615 715 404

ECO EIBAR 4D
imagen prenatal
R.P.S. 44340878y
688 800 800
Isasi kalea, 17 - EIBAR
4D ekografietan espezialistak

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA
Terbio Etxebarria, 22
Eibar
Tel. 943 106 020
Mug. 677 551 850

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behe
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&más
Fisioterapia aurreratu eta Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 583 628
www.fisio-mas.com
RPS 132/09

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Jeku eder
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053


Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida



Iosu Juaristi



Ainhoa Lendinez



Zintzilik. Harietatik zintzilik txotxongiloak, eta adarretatik saguzarrrak. Zintzilik leihoetan arropa bustiak, eta kanpandorreetan kanpaiak. Zintzilik erakusketetan koadroak eta marrazkiak. Zintzilik daude Euskal Herriko etxe atarietan ikurrinak eta bestelako oihalak. Eta zintzilik kaleko hormetan kartelak eta afixak.

Baita Elgoibarren ere. Elkarretaratzeak iragartzen dituzten kartelak, partidak, kontzertuak eta jaiak iragartzen dituztenak. Kartel batzuek kaleak itsusten dituzte, ordea. Baina batzuek bakarrik. Behin baino gehiagotan gertatu zait kaleko hormetan kartelak jarri eta hurrengo egunean desagertzea. Udalak ba omen du garbitasun politika bat, tarteka hormetan itsatsitako kartelak kentzera behartzen duena. Politika selektiboa inondik ere, kartel batzuk kendu eta besteak zintzilik uzten baititu.

Garbitasun politika horri esker jakin dut nor den Vonda Shepard abeslaria. Estatubatuarra da, eta Ally McBeal teleaioan aritu omen zen bere garaian. Interesgarria, bai horixe! Eta gure kulturarekin bete-betean bat egiten duena gainera. Gustuko baduzu, jakizu kontzertua egingo duela aurki Eibarren. Udalaren garbitasun politika horri esker, agian ez duzu jakingo bihar Iruñera joango garela milaka eta milaka euskal herritar, Altsasuko gazteei eta haien senideei babesa ematera. Edo ez duzu jakingo San Juan bezperan herriko plazan elkartuko garela Sebas Etxaniz go-goan hartuta. Ez duzu halakorik jakingo, guk jarritako kartel horiek Shepardenak baino zikinagoak direlako, eta hormak itsusten ditzutenez, garbitzaileek kentzeko agindua dutelako.

Larunbatean 15:00etan aterako gara autobusean Iruñera, eta San Juan bezperan 11:30ean elkartuko gara plazan. Begi bakarrek garbitasunaren haritik zintzilik ari diren udaleko agintariak ere gonbidatuta daude bi hitzorduetara.

“Kartel batzuek kaleak itsusten dituzte. Baina batzuek bakarrik”



I. URTEURRENA

Juan Mari Uranga Uranga

2017ko ekainaren 9an hil zen, 51 urte zituela.
Haren oroimenez, I. urteurreneko meza izango da,
domekan, ekainaren 17an, 12:30ean
Mendaroko Azpilgoetako eliz-parrokian.

***Zure oroimenak indartzen gaitu.
Beti izango zaitugu gure bihotzetan.***

Etxekoak



II. URTEURRENA

Mikel de Pablo Cid

2016ko ekainaren 14an hil zen, 30 urte zituela.

***Zure indarrak eta irribarreak aurrera egiten laguntzen digu.
Beti gure bihotzetan, etxekoak.***



Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainaren 16an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



III. URTEURRENA

Garbiñe Iriondo Aristondo

2015eko ekainaren 13an hil zen, 47 urte zituela.

***Udaberriarekin batera, urtero bezala,
ekainaren hamahirua utzi dugu atzean.
Gugandik joan zinen arren, Garbiñe maitea,
eman zenigun maitasuna dago gure artean.
Begirada eta irribarre eder haiek
betirako ditugu gure bihotzean.
Zure oroitzapenak gurekin dirau
mendian landaturiko haritzean.***

Zure kuadrilla

etxegain

BIZIGUNEA



Gorenean

WWW.ETXEGAIN.COM

★
3 logelako
etxebizitzak
160.000 € -tik
hasita



elgoibar

3 ETA 4
LOGELAKO
21 ETXEBIZITZA

TERRAZA ZABALAK ETA
PERTSONALIZATZEKO MODUKO
TXOKOAK DITUZTEN BEHEKO SOLAIRUAK

LOGELAK
10 M²-TIK
GORAKOAK

EGONGELA
GUZTIAK 20 M²-TIK
GORAKOAK

IKUSPEGI ZABALAK
DITUZTEN TERRAZA
HANDIAK GARAIERAN

etxegain goi-mailako sustapena duzu. Ikuspegi inbidiagarriaz gozatzeko aukera ematen duen goragune batean, goi-mailako eraikin bati dagozkion materialez egina, eta betiere GRUPO EIBAREK eskaintzen duen zerbitzu-maila gorenarekin, zure etxebizitza pertsonalizatzeko aukera zabalekin.

etxegain en prezioak soilik dira baxuak, eta horregatik da goi-mailako higiezin-inbertsioa.



943 31 66 11

E: comercial@grupoebiar.com
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

630 24 83 83
689 66 08 01

OBRA FINANZIADA POR:

bankoa Grupo
Crédit Agricole

GE grupo eibar
inmobiliario